

Mutualiak 164 milioi euro bideratu zituen Euskadiko prestazioak ordaintzeko

- Prestazioren bat jaso zuten pertsonen gogobetetze-indizea 8,5ekoa izan zen, 10etik.
- Mutualiak, batez beste, 12,11 baja-egun ordaindu zituen, babestutako langile bakoitzeko.

Donostia, 2019ko uztailaren 29a

Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. mutualitateak, Ohiko Batzar Nagusi Orokorra egin du, eta, bertan, 2018ko ekitaldiko ekonomia-balantzea eta jardura onetsi dira. 15,6 milioi euroko emaitza lortu da, eta kuoten sarrerak 301,9 milioi eurokoak izan dira. Prestazioengatik guztizko gastuari begira, 174,5 milioi eurokoa izan da, eta, horietatik, 164 milioi eman zaizkie EAEko langileei. Horrez gainera, 2018ko ekitaldian zehar, 1,15 milioi euro bideratu zituen premia bereziko egoeran zeuden pertsonen laguntza emateko.

2018ko ekitaldian, nabarmen egin dute gora gertakizun arruntagatik prestazioek, eta horrek lotura zuzena du bajen hazkundearekin, zeina arriskuan jartzen ari den mutualitateen sektorearen bideragarritasuna. Ildo horretatik, Mutualiaren presidente Urtza Erraztik honako hau nabarmendu du bere esku-hartzean: “ideia ona izango litzateke mutualitateek modu hedatu eta sakonean parte hartzea gure sektorearen etorkizuna definitzeko orduan”. Bestalde, Mutualiaren zuzendari kudeatzaile Ignacio Lekunberrik honako hau adierazi du: “Mutualiak gizartean zilegitasun handiagoa izatera bideratu behar dugu estrategia”.

Mutualiaren Pakea klinikako areto nagusian egindako Ohiko Batzar Nagusia amaitutakoan, “Mutualiak honekin egindako elkarrizketak: ...” izeneko saio bat egin da. Bertan, ADEGIren idazkari nagusi José Miguel Ayerzak Euskal Herriko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzako lurralde-zuzendari Carlos Emilio García Martín hitz egin du, eta honako hau nabarmendu du: “Gizarte Segurantzarekiko iruzurraren kontrako borroka lehentasuna izaten jarraituko du ikuskatzailtza-sistemarentzat, bereziki lanaldi handiagoak, zenbait sektoretan

gutxiago kotizatzea eta autonomo faltsuak ezkutatzen dituzten lanaldi partzialeko kontratuei dagokienez; arreta berezia eskainiko zaie plataforma digitalen bidez lan egiteko modu berriei".

Beste urte batez, Batzar Nagusiak ingurumen-neurriak jaso ditu bere diseinu eta antolaketan, Erronka Garbia metodologiari jarraikiz; hain zuzen ere, prozedura horrek ingurumenaren gaineko inpaktu negatiboak minimizatzea ahalbidetzen du, ekitaldiak egiteari dagokionez.

Editoreentzako oharra:

Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. mutualitateak, helburutzat du osasun-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea elkartutako enpresentzat eta babestutako pertsonentzat. 600 langiletik gorako plantilla du, eta Euskal Herrian egiten ditu nagusiki jarduerak; bertan, 400.000 lagun ingururi laguntza eskaintzen dieten 3 ospitale eta 15 laguntza-zentro ditu.

Informazio gehiago jasotzeko:

Juan Villar

Komunikazio Zuzendaria

Director de Comunicación

669891210